# IRAGARKIAK

## Beste iragarki ofizial batzuk

### EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

### 566

*IRAGARKIA, 2024ko urtarrilaren 8koa, Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen den, lehia posible baten ondorioetarako, Bizkaiko Gordexola eta Arabako Okondo eta Ayala/Aiara udal-mugarteetan, Las Americas 20 parke eolikorako aldez aurreko administrazio-baimenaren eskaera.*

115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan ezarritako ondorioetarako (115/2002 Dekretua, maiatzaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan parke eolikoetako energia eolikotik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duena), Las Americas 20 parke eolikorako aurkeztutako aldez aurreko administrazio-baimenaren eskaera iragartzen da:

– Eskatzailea: Arena Green Power 20, S.L.U.

– Tartean dauden udal-mugarteak: Gordexola (Bizkaia), Okondo eta Ayala/Aiara (Araba).

– Haize-sorgailuen kopurua: 6.

– Instalatu den potentzia gordina: 35 MW.

– Ukitutako azaleraren poligonalaren koordenatu geografikoak:

| Poligonala | UTM x (m) | UTM y (m) |
|---|---|---|
| 1 | 494.336,18 | 4.778.863,35 |
| 2 | 494.658,30 | 4.778.863,35 |
| 3 | 494.658,30 | 4.778.421,51 |
| 4 | 495.224,47 | 4.778.421,51 |
| 5 | 495.224,47 | 4.778.102,75 |
| 6 | 494.692,66 | 4.778.102,75 |
| 7 | 494.692,66 | 4.777.437,31 |
| 8 | 494.358,67 | 4.777.437,31 |
| 9 | 494.358,67 | 4.776.706,40 |
| 10 | 495.516,60 | 4.776.706,40 |
| 11 | 495.516,60 | 4.777.137,03 |
| 12 | 496.246,21 | 4.777.137,03 |
| 13 | 496.246,21 | 4.776.403,95 |
| 14 | 497.062,75 | 4.776.403,95 |
| 15 | 497.062,75 | 4.777.593,73 |
| 16 | 497.395,32 | 4.777.593,73 |
| 17 | 497.395,32 | 4.778.069,08 |
| 18 | 497.886,24 | 4.778.069,08 |
| 19 | 497.886,24 | 4.777.225,94 |

| Poligonala | UTM x (m) | UTM y (m) |
|---|---|---|
| 20 | 497.474,43 | 4.777.225,94 |
| 21 | 497.474,43 | 4.775.976,38 |
| 22 | 493.773,19 | 4.775.976,38 |
| 23 | 493.773,19 | 4.777.994,20 |
| 24 | 494.337,07 | 4.777.994,20 |

Hori guztia argitara ematen da, eta hogei eguneko epea ematen da, iragarki hau 115/2002 Dekretuaren 4. artikuluan aipatzen diren aldizkarietan argitaratzen den egunetik aurrera zenbatzen hasita, parke eoliko hori ezarri eta ustiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridikoek aipatutako dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren araberako lehia-eskabidea aurkeztu dezaten Bizkaiko Industria Administrazioko Lurralde Ordezkaritzan (Bilbao, Concha Jeneralaren kalea 23, 48010 PK) edo izapidetze elektronikoaren plataformaren bidez, GE-Y prozeduraren bidez, hemen:

https://www.euskadi.eus/prozedura/ge/web01-a2energi/eu/

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 8a.

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
ZIGOR URQUIAGA URQUIZA.